

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2292

AGINDUA, 2017ko maiatzaren 3koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2017ko ekitaldiko musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

Arte eta kultura alorreko jardueri loturiko eskumenak eta horien zabalkundeari dagozkionak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio, horixe xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak. Eskumen horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen dizkio apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Zuzendaritza horrek egoki deritza musika-jarduerak sustatzeko aukera emango duen bidea antolatzeari, jarduketa hori bere eskumenen esparruan sartzan den heinean, jarduera profesional hauek burutzeko diru-laguntzak emanez: musika partituren edizioa, musika-proiektu unitarioak, musika-ekimen enpresarialak eta musika programazioa. Neurri horren bitartez, euskal musikarien sorkuntza-lana sustatzeko formula lortu nahi da eta, bide batez, beren ahalegina aintzatetsita ikusteaz gain, beren finantzabideak areagotzeko aukera emango dieten beste merkatu batzuk jorratzea.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea, modalitateak eta proiektuak garatzeko epea.

1.– Agindu honen bitartez, 2017ko ekitaldiko musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzak nola emango diren arautuko da.

2.– Deialdi honetan diru-laguntza modalitate hauek kontenplutzen dira:

- II. kap.: Musika-partituren edizioa.
- III. kap.: Musika-proiektu unitarioak.
- IV. kap.: Musika-ekimen enpresarialak.
- V. kap.: Musika-programazioa.

3.– Partituren edizioa, musika proiektu unitarioen eta musika-ekimen enpresarialen modalitateetan diruz-laguntzen diren proiektuak, osoak edo beroien fase partzialak, 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko azaroaren 30era garatu behar dira eta data bi horien artean lagundutako obra edo jardueraren aurkezpen publikoren bat egitea aurreikusi behar dute.

Musika programazioaren modalitatean, deialdiak jasotako epea 2017ko urriaren 1etik 2018ko irailaren 30era bitartean luzatzen da.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta emateko prozedura.

1.– Diru-laguntza hauen gehienezko zenbateko orokorra 500.000 eurokoa izango da eta aipatutako modalitateen artean honela banatuko da:

- a) Musika-partituren edizioa: 30.000 euro.
- b) Musika-proiektu unitarioak: 135.000 euro.
- c) Musika-ekimen enpresarialak: 195.000 euro.
- d) Musika-programazioa: 140.000 euro.

2.– Diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da; horretarako, modalitate bakoitzean ezarritako irizpideak aplikatuta, eta deialdi honen 10. artikuluan finkaturiko prozeduraren arabera, eskabideak baloratu eta diru-laguntzak banatuko dira.

3.– Eskabide kopuruagatik edo eskakizunak ez betetzeagatik, modalitate baterako ezarritako diru-kopurua agortzen ez bada, Kultura Sustatzeko Zuzendariak gainerako kopurua beste modalitate batera eramatea proposatu ahalko du. Kasu horretan hasierako kopuruaren arteko desoreka handien duen modalitateak lehentasuna izango du.

3. artikulua.– Pertsona onuradunen betekizunak.

1.– Modalitate bakoitzerako finkaturiko bestelako baldintzak gorabehera, agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuragarriek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Helbidea edo sozietate-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duen pertsona fisiko edo juridiko-pribatua izatea edo, bestela, aurkezten den proiektuaren helburua Euskal Herriko artistak edo musikarien lanak ekoiztea edo zabaltzea izatea.

Betebehar honi dagokionez, ez dira kontuan hartuko «Ondasunen erkidego» formapean aurkeztutako eskabideak ez eta nortasunik gabeko bestelakorik ere.

b) Jarduera ekonomikoen zergako musika jarduerako epigrafe batean altan egotea eta, pertsona juridikoen kasuan, sozietatearen xedek zerikusia izatea musika-jardueren garapenarekin.

2.– Agindu honen bidez ematen diren diru-laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da zerga-betebeharrak egunean izatea.

3.– Ezin dute laguntzarik jaso diru-laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigor administratibo edo penalik duten pertsona eskatzaileek, ezta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik dutenek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legezko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomoek ezaugarri bereko laguntza edo diru-laguntza batzuk eman badizkiote eta horiek itzultzeko edo zigorren bat ezartzeko prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura bukatu arte ezingo da diru-laguntza onartu, eta hala badagokio, ordaindu. Halaber, jasotako diru-laguntza bere diru-sarreraren artean

berriz sartu ez izana, itzultze-prozedura bat bukatutakoan, berriz ez sartzeko agintzen duen ebazpen bat eman bada, ezingo da diru-laguntza onartu, eta hala badagokio, ordaindu.

5.– Halaber, pertsona edo entitate onuradunek, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak bere 13. artikuluan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

4. artikulua.– Bideragarritasuna, lagun daitezkeen gastuak, azpikontratazioa eta laguntzen muga orokorra.

1.– Proiektuak, ekonomia aldetik bideragarriak direla egiaztatzeko, aurrera eramateko beharrezko gastu arruntaren eta hura estaltzeko aurreikusitako diru-sarreraren arteko aurrekontu doituak aurkeztu behar da; sarrera horien barruan deialdi honetan eskatutako kopurua barne delarik.

2.– Deialdi honetako modalitate guztietan lagundu eta justifikatu beharreko gastuak soil-soilik ekintza zehatzei atxikitakoak izango dira, inbertsio gastuak eta BEZari dagozkienak kanpo gelditzen direlarik. Pertsonal gastuei dagokienez, horiek kalkulatzeko erabilitako prozedura eta erreferentzia zehatzak erantsi beharko dira.

3.– Onuradunak hirugarren batzuekin azpikontratatzeko duen jarduera, diruz lagundutako jardueraren % 75era iritsi ahal izango da, azpikontratu guztien prezioak batuta. Kontzeptu honetatik kanpo geratzen dira onuradunak diru-laguntza jaso duen jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

4.– Deialdi honetako modalitate guztietarako, Musika proiektu unitarioetarako izan ezik, Herri administrazio desberdinetatik jasotako diru-laguntza guztiek ezingo dute gainditu diruz lagundutako jardueraren kostuaren % 80.

5. artikulua.– Eskabideak: epea eta moduak.

1.– Eskaerak aurkezteko epea agindu hau EHAAren argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabetekoa izango da.

2.– Pertsona juridikoek eskabideak bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko dituzte. Pertsona fisikoek bitarteko presentziala ere erabili ahaliko dute.

3.– Eskaerak nola tramitatu aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak azaltzen dituzten argibideak euskadi.eus-en honako helbide honetan daude ikusgai: https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2017/musika_jarduera/y22-izapide/eu/, baita Administrazio egoitzetan ere.

4.– Aurrez aurre: eskabideak, Zuzenean Zerbitzuko bulegoetan, EAEko erregistro laguntzaileetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoak) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean aurkeztu ahal izango dira.

5.– Pertsona fisikoek eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat erabiltzeak –presentziala edo elektronikoa–, ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoiz aldatu daiteke bidea.

6.– Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke: <http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

7.– Pertsona eta erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta gainerako dokumentazioa. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzaileak auke-

ratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan, Euskararen Erabilpena Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duen moduan.

8.– Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

6. artikulua.– Betekizunen akreditazioa eta ekarri beharreko dokumentazioa.

1.– Eskatzaileari dagokionez:

1.1.– Identitateari buruzko datuak.

Administrazio publikoak esleituta dituen egiaztapen-, kontrol- eta ikuskaritza-ahalmenak alde batera utzi gabe, pertsona edo entitate eskatzaileak, espresuki eman dezake baimena organo kudeatzaileak datu horiek lortu edo egiaztatzeko.

1.2.– Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki, pertsona edo eskatzaileak baldintza hauek betetzen dituela, eta horretarako ez du pertsona edo entitate horien oniritzia behar, halaxe xedatzen du-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak.

1.3.– Halaber, Deialdi honen organo kudeatzaileak eskatzaileak Jarduera ekonomikoen zergako musika jarduerako epigrafe batean alta egina duen egiaztatuko du.

1.4.– Aurreko paragrafoetan aipatutako datu edota betebeharrak eskatzaileak, espresuki, uko egin ahalko dio bere baimena; kasu horretan eskatzaileak berak aurkeztu behar dituzte dagozkion agiriak.

1.5.– Pertsona juridikoak: legezko eraketa eta ordezkariak.

– Administrazio honetan inskribatutako entitateak: dagokion erregistroaren azalpena.

– Beste Administrazioetan inskribatutako entitateak: inskripzio agiria, sortze-ekritura eta estatutuak.

– Hala badagokio, eskabidea kudeatzen duen pertsonaren Legezko ordezkari-maila egiaztatzea.

– Deialdi honetan parte hartzeko entitatearen gobernu organoaren akordioa.

2.– Proiektuari dagokion dokumentazioa.

2.1.– Partituren edizioen, Musika proiektu unitarioen eta Musika ekimen enpresariaren modalitateak:

a) Oroitza orokorra, eduki hauekin: a) egindako eskaeraren markoan garatu beharreko jardueren zehaztapena; b) pertsona edo entitate eskatzailearen ibilbidea eta c) 2016ko jarduera eta ekoizpenari dagokion oroitza.

b) Hala badagokio, Egileen eskubideei buruzko aitortza, ziurtagiria edo egoera txostena.

c) Formularioak: 1.– Eskabidearen laburpena; 2.– Pertsona edo entitate eskatzailearen profila; 3.– Hala badagokio, artistaren edo musika taldearen datuak (baita, ikus-entzunezko erreferentziak);

4.– Hala badagokio, Emanaldien zerrenda eta bira aurreikuspena; 5.– Proiektuaren aurrekontua; 6.– Beste diru-laguntzen aitorpena.

2.2.– Musika-programazioaren modalitatea:

a) Aretoaren dokumentazio administratiboa:

a.1.– Musika-ekitaldietarako behar den hirigintza- edo udal-lizentzia izatea.

a.2.– Aretoaren erantzukizun zibileko aseguruia.

a.3.– Deskribapena, ibilbidea eta rider teknikoa.

a.4.– Eskatzailea ez bada aretoaren gerentea, gerente horrek sinaturiko agiria: deialdi honi dagokion musika programazioa kudeatzeko diru-laguntzaren eskatzaileari emandako ahalmena.

b) Aretoaren jarduera kulturalari dagokion oroitza: planteamendua eta 2016an garatutako jarduerak.

c) Formularioak: 1.– Eskabidearen laburpena; 2.– Pertsona edo entitate eskatzailearen profila; 3.– 2016an aretoak programaturiko kontzertuak; 4.– Proiektuaren aurrekontu orokorra; 5.– Beste diru-laguntzen aitorpena.

3.– Dokumentazioa aurkezteko formatua.

Eskabide orriekin batera, eta erabilitako bidea edonolakoa dela ere (presentziala edo elektronikoa), dokumentazio guztia, ahal delarik, euskarri elektronikoan aurkeztu behar da, honako ezaugarrien arabera:

a) Deskargatzeko ereduak erabiliko dira holakoak daudenean. Bestelako kasuetan, ahal bada dokumentazioa PDF formatuan aurkeztuko da.

b) Dokumentazio elektroniko guztiaren gehieneko tamaina 30 Mb izango da.

c) Musika edo ikusentzunezko erreferentziak, web helbideak emanez aurkeztu ahal izango dira, dagokion formularioan.

7. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezartzen duenaren arabera (1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira honako betebeharrak hauek:

a) Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea.

b) Aurreko bi urteotan eta aurreko, edozeinengatik, jasotako «minimis» motako diru-laguntzei buruzko adierazpena jakinaraztea.

c) Egunean izatea indarrean dauden xedapenak ezartzen dituzten zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak arauz zehaztu den bezala.

d) Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez izatea zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik.

e) Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela.

8.– Deialdiaren eta emandako diru-laguntzen kudeaketa – organoa.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-zereginak egitea.

Era berean, diru-laguntza lortu duten proiektuak modu egokian gauzaten direla ziurtatzeko Zuzendaritza horrek beraien jarraipena egingo du eta horretarako egoki irizitako ikuskapenak egin ahal izango ditu. Eragin horietarako pertsona onuradunak behartuta daude eskatzen zaien dokumentazioa eta informazioa aurkeztera.

9. artikulua.– Eskaeretako azterketa, akatsen zuzenketa eta onarpena.

1.– Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen diren dokumenturen bat falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

2.– Akatsak zuzentzeko fasea amaitu ondoren, organo kudeatzaileak aurkeztutako eskabideak eta dokumentuak aztertuko ditu eta egiaztatuko du deialdiko eskakizun orokorrak eta modalitate bakoitzeko eskakizun espezifiko guztiak betetzen direla. Horren ondoren, aurreikusitako balorazio-prozesurako zer proiektu onartu erabakiko du.

Edonola ere, eskabide guztiei buruzko ebazpena eta jakinarapena agindu honen 13. artikuluari jarraituz egingo da.

10. artikulua.– Onartutako eskabideak balorazioa eta ebazpen-proposamena.

1.– Onartutako proiektuak baloratzeko, Balorazio Batzorde bat osatuko da modalitate bakoitzeko. Horren osaera Kultura sailburuordearen ebazpen baten bitartez jakinaraziko da eta ebazpen hori EHAA-n argitaratuko da, batzordeak lehenengo bilera egin baino lehen.

2.– Balorazio Batzordeetako burua Kultura Sustatzeko zuzendaria izango da edo horrek izendatutako pertsona.

Idazkari gisa Zuzendaritza bereko teknikari bat izango da, zuzendariak aukeratua. Idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

Batzordeetako bokalak bi gutxienez eta bost gehienez izango dira, musikarekin edo kultur kudeaketarekin zerikusia duten profesionalen artetik izendatuta, berdinean delarik independenteak diren edo gai honetan adierazgarriak diren Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetan integratutik dauden. Horien izendapena Kultura sailburuordeak egingo du.

3.– Balorazio-batzordeak eratzerako, ezinbestekoa da Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikulua betetzea.

4.– Modalitate bakoitzeko Balorazio Batzordeak, ezarritako esleipen-irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena egingo dio Kultura sailburuordeari.

5.– Batzordeek, beharrezkoa irizten diotenean, egoki irizitako argibideak emateko eskatu ahal izango diete eskatzaileei, proiektuen arduradunekin horretarako elkarriketak hitzartuz ere bai,

behar izanez gero. Halaber, Musika ekimen enpresarialen modalitatean eskabidea egiten duten pertsona guztiek Batzordearen aurrean beren proiektua defendatzeko aukera izango dute horrela eskatuz gero (1. Formularioan). Proiektu bakoitzari 15 minutu eskainiko zaizkio gehienez.

11. artikulua.– Diru-laguntzak banatzeko irizpideak.

1.– Behin proiektuak modalitate bakoitzean finkaturiko irizpideen arabera baloratu ondoren, puntuen % 50 lortzen ez dutenak automatikoki baztertu egingo dira.

2.– Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasun-irizpidea erabiliko da. Hortaz, funts erabilgarria proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren eta aurrekontuaren bolumenaren arabera banatuko da. Hala ere, Musika programazioaren modalitatean emango diren behin betiko kopuruak, 28.3. artikuluan azaltzen den modulu prozeduraren arabera finkatuko dira.

3.– Bukaerako diru-laguntzak ez du inoiz eskatutako kopurua gaindituko eta 4.4 artikuluan eta modalitate bakoitzean finkaturiko gehienezko kopuru-mugak errespetatuko ditu.

12. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna eta modalitateen artekoa.

1.– Agindu honetako 4.4. artikuluan eta artikuluko honen gainerako paragrafoetan adierazita-koa errespetatuz, deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuak helburu berbererako emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Gain-finantzaketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

2.– Deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak ez dira bateragarriak izango Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak emandako diru-laguntzekin: ez proiektu bera egiteko, ez proiektuaren zatiren bat egiteko. Diru-laguntzak, berriz, izendunak, zuzenak, edota musika, dantza, ikus-entzunezko, antzerki, ikusizko arte, liburugintza eta literatura alorretako aginduen babesean emandakoak izan daitezke.

3.– Deialdiko modalitatearen batean diru-laguntza jasotzen duen proiektu musikal batek ezingo du beste modalitateetako diru-laguntzarik jaso, bateraezinak baitira. Aurreikuspen honek ez du eraginik izango Musika programaziorako modalitatean emandako diru-laguntzaen modalitatearen bitartez kontrataturiko musika ekoizpenei dagokienez.

4.– Era berean, ezingo zaizkio pertsona eskatzaile berari batera diru-laguntzarik eman Musika proiektu unitarioen eta Musika-ekimen enpresarialen modalitateetan.

13. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak esleitzeko ebazpena Kultura sailburuordeak emango du, Balorazio Batzordearen proposamena ikusita, eta sei hilabeteko epean interesdun guztiei jakinaraziko zaie, agindu hau indarrean jartzen denetik. Gainera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen horren erreferentzia bat argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

2.– Ebazteko epea amaituta, interesdunari inolako jakinarazpenik egin ez bazaio, eskabidea errefusatutzat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3.– Jakinarazpena egindakotzat joko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Izapidetze telematikoaren kasuan, aldiz, eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30.2 artikuluan xedaturikoari jarraiki, Jakinarazpen-sistemak jakinarazpena ze egun eta ordutan jarri den interesdunaren eskuetan ahalbidetuko du; eta interesduna noiz sartu den edukira. Sartzan den momentutik aurrera pentsatuko da jakinarazpena eginda dagoela.

Jakin baldin badakigu iritsi zaiola jakinarazpena, baina hamar egun natural geroago oraindik ez baldin bada edukira sartu, ulertuko dugu jakinarazpena ukatu egin duela. Izapidea eginda dagoela ulertuko da eta prozedurak aurrera jarraituko du, non eta ez den garbi geratzen, ofizioz edo interesdunak eskaturik, teknikoki ezinezkoa izan zaiola edukira sartzea.

14. artikulua.– Betebeharrak.

Laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, pertsona onuradunek diru-laguntza eman zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean berariaz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea. Aurkeztutako proiektuan aldaketaren bat eginez gero, onuradunak horren berri emango dio idatziz Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari hilabeteko epean, esleipen-ebazpena jasotzen denetik aurrera. Zuzendaritzak, bere aldetik, 15 egun balioduneko epea izango du, aldaketaren berri jasotzen duenetik, erantzuna emateko. Epe hori amaituta inolako jakinarazpenik jaso ez bada, aldaketa onartutzat joko da.

c) Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen erabilera kontrolatzeko behar duten informazio guztia ematea.

d) Diru-laguntza jaso duen lanari buruz argitaratzen diren disko, katalogo, programa, iragarpen-kartel eta gainerako material grafikoaren ale guztietan Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza politikaren diru-laguntza espresuki adieraztea. Material hori, Euskal Autonomia Erkidegorako denean, hizkuntza ofizial bietan egingo da gutxienez.

e) Agindu honetan ezartzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diren laguntza eta diru-laguntzak jaso ahal izateko ezartzen direnak, baita Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrek bere 14. artikuluan jasotako.

15. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa eta justifikazioa.

1.– Diru-laguntzak honela ordainduko dira:

a) Lehenengo ordainketa, emandako diru-laguntzaren % 50, ebazpena jakinarazten denetik aurrera egingo da, 14.a) artikuluan aipatutako epea igarota, diru-laguntzari uko egin ez bazaio.

b) Gainerako % 50a, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, hurrengo paragrafoan xedatutakoaren arabera.

2.– Pertsona onuradunek, dagokion jarduera amaituta, betiere 2018ko azaroaren 30a baino lehen, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

2.1.– Egindako jardueri buruzko txostena eta ebaluazioa.

2.2.– Dagozkion ondorengo agiri edo materialak:

- a) Ekoizpen eta edizio grafikoak, soinudunak edo ikus-entzunezkoak: editatutako edo ekoiztutako materiala.
- b) Zuzeneko musika ekoizpenen estreinaldiak: kontratua edo haren egiaztatzea.
- c) Partituren edizioa: obra ISMN-ko (International Standard Music Number) erregistroaren egiaztatzea.
- d) Musika programazioa: deialdi honen eremuan programaturiko kontzertu eta taldeen zerrenda.
- e) Jarduera sustatzeko edo zabaltzeko katalogoak, programak eta landutako beste edozein material.

2.3.– Justifikazio ekonomikoa:

- a) Burututako proiektua dela-eta izandako gastu eta sarreraren balantzeari buruzko erantzukizunpeko aitorpena.
- b) Diruz lagundutako programa edo jarduera gauzatzeak sorturiko gastuak justifikatzen dituzten dokumentu guztien zerrenda (5.6 artikuluan aipaturiko euskadi.eus-eko helbide elektronikoan ezarritako ereduaren arabera).

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbateko kengarria ezingo da egindako gastutzat hartu.

- c) Emandako diru-laguntzaren adinako gastuak, gutxienez, justifikatzen dituzten egiaztapen eta fakturak.

Hala ere, behin dokumentazioa aztertu ondoren, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak gastu zerrendan aitortutako beste edozein frogagiria eskatu ahalko dio onuradunari.

- d) Musika Programazioaren modalitatean, aurreko a), b) eta c) paragrafoak betetzeko erreferentzia diru-laguntzaren zuri-keta moduan aurkeztutako kontzertu zerrenda izango da (artikulu honen 2.2. paragrafoa) eta kitatu beharreko gastuen tipologia 27.4.a artikuluan zehazten direnak.
- e) Helburu berbererako jasotako beste laguntzen aipamena, baldin eta eskabidea aurkeztu zen nea, onuradunak horien berri ez izanagatik aitortu ez bazituen.

3.– Aipaturikoez gain, pertsona edo entitate onuradunek, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorak bere 30. artikuluan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

4.– Diru-laguntzen justifikazioak aurkezteko Agindu honen 5. Artikuluaren eskaera aurkezpenei dagozkien emandako argibideak kontuan hartu behar dira. Halaber, justifikazio ereduak artikuluko horretako 6. puntuan aipaturiko egoitza elektronikoan ikusgai daude.

16. artikulua.– Aldaketa-ebazpena.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero (betiere, helburua bete dela iritzi gero) edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutik ere diru-laguntzaren bat jasoz gero, diru-laguntzak esleitzeko emandako ebazpena aldatu egin ahal izango da. Horrelakoetan, Kultura, sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du, diru-laguntzen zenbatekoak doitzeko.

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoe-tan erabiltzea.

b) Agindu honetan edo diru-laguntza emateko egintzan adierazitako betebeharrak ez betetzea.

c) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea (hala badagokio).

d) Diru-laguntzekin lotutako beste edozer eta, zehazki, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra-ren 37. artikuluan jasotakoak.

2.– Ez-betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, eta Euskal Autonomia Erkidegoa-ren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko Dekretua, hurrenez hurren).

II. KAPITULUA

MUSIKA PARTITUREN EDIZIO EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

18. artikulua.– Laguntzen diren jarduerak eta laguntzetako mugak.

1.– Modalitate honen bidez Euskal Herrian jaio edo bizi diren egileen obretako partituren argitalpen profesionala sustatuko da, obra horiek zuzenean zabalduak izateko.

2.– Diruz lagunduko diren proiektuek honako irizpide hauek bete beharko dituzte:

– Argitalpen inprimatua eginez gero gutxienez, 300 aletako tirada bat egitea (ganbarako obrak edo formatu handiko obra sinfonikoak izan ezik, non, obraren eta edizioaren helburuaren arabera, ohiko usuak kontuan hartuko baitira.).

– Banaketa digitalaren kasuan, salmentarako plataforma komertzial egokia izatea.

3.– Espresuki geratuko da deialdi honetatik kanpo material didaktikoen edizioa.

4.– Modalitate honetan, eskatzaile bakoitzak proiektu bakar baterako diru-laguntza jaso ahal izango du gehienez, nahiz eta horren barruan argitalpen proiektu desberdinak azaldu eta aurrekontu egin. Dena den, onuradun bati ezingo zaio 10.000 euro baino gehiagoko kopurua eman.

19. artikulua.– Hautaketa eta balorazio irizpideak.

Modalitate honetan aurkezturiko proiektuak baloratzeko eta puntuatzeko ondorengo irizpideak eta puntuazioaren orokorraren gaineko portzentaiak erabiliko dira:

1.– Argitalpen proiektua:

a) Kultura eta musika aldetik, ondare eta/edo arte aldetik proiektuak duen interesa, kontuan harturik argitaratu beharreko objektua –egilea eta lana– (% 35).

- b) proiektua argitaratzeko plana eta zabalkunderako plana (% 15).
- c) Proiektuaren aurrekontuaren koherentzia eta autofinantzaketa maila (% 20).
- d) Emakumeek konposaturiko obren partiturak editatzea (% 5).

2.– Erakunde eskatzailearen balorazioa, Euskadiko musika-jarduera profesionala ekoizteko eta zabaltzeko entitate gisa, 2016. urtea erreferentziatzat hartuta eta erreferentzia hauen arabera:

a) antzintasuna (% 5); b) pertsonal-bolumena % 5); c) ekoizpen bolumena (% 5); d) Euskadiko musikariei dagozkien zerbitzuak eta ekoizpenak (% 10).

III. KAPITULUA

MUSIKA-PROIEKTU UNITARIOETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

20. artikulua.– Eskatzailearen betekizun espezifikoak.

1.– 3.1 artikuluan aipatzen direnez gain, modalitate honetako eskatzaileek dagozkien ondorengo baldintzak bete behar dituzte.

2.– 21.1.1 artikuluan aipatzen diren jardueretarako, proiektuari dagokion musika taldeak haue-tako irizpide bat, gutxienez, betetzen duela:

a) 2 disko gutxienez argitaratua izana eta lehenengoa, 2012. urtea baino lehen.

b) bere musika ibilbide osoaren zehar, Euskaditik kanpo 45 kontzertu profesional egin izana.

3.– 21.1.2 artikuluan aipatutako jardueretarako, modalitate honetako arloetan bi proiektu gutxienez egin izana, 2012. urtearen ondoren.

4.– Proiektua bultzatzen duen pertsonaren edo taldearen curriculum-ari edo ibilbideari dagokio-nez, egungo izen desberdina duten proiektuen erreferentziak onartuko dira, baldin eta Balorazio Batzordearen iritziz, proiektuotan pertsona edo talde horren inplikazioa behar bezala egiaztatuta gelditzen bada.

21. artikulua.– Laguntzen diren jarduerak eta laguntzetako mugak.

1.– Modalitate honen bitartez, ondorengo jarduera bat edo gehiago kontenplazten dituzten proiektuak sustatuko dira:

1.1.– Aktiboan dagoen Euskal Herrian jaio edo bizi direnen musikari edo musika talde bati dagozkionak:

a) Musika ekoizpena, zuzeneko formatuan edo fonografikoan.

Deialdi honen ondorioetarako, hauek joko dira musika-ekoizpentzat: musika-konposizioa jendaurrean aurkezteko, aldeztatik egin behar diren jarduera materialak eta entseguak.

b) Musika proiektu baten promozioa eta zabalkundea.

1.2.– Bestelako ekintzak euskal musikaren alorrean:

a) Publikoen sentsibilizazioa edota formakuntza.

b) Modalitate honen barnean kontenplazten diren aktibitateak etorkizunean garatzeko ikerketa edo formakuntza espezifikoa.

Jarduera hauei dagokienez, beharrezkoa izango da garatu nahi den musika-proiektuaren oinarriak aurkeztea.

2.– Jarduera hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Ekoizpen baten estreinaldiaren ondorengo kontzertuak, bai kontzertu puntualak bai biretan edo jaialdien barruan egiten direnak.

b) Formakuntza akademikora edo eskolarrera soilik bideratutako jardueren edo materialen edizioa.

c) Azoka komertzialetara joatea.

3.– Modalitate honetan, eskatzaile bakoitzak proiektu bakar batentzako jaso ahal izango du diru-laguntza, nahiz eta horren barruan jarduera desberdinak azaldu eta aurrekontu egin. Dena den, onuradun batek ezingo du 10.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza jaso.

22. artikulua.– Hautaketa eta balorazio irizpideak.

Modalitate honetan aurkezturiko proiektuak baloratzeko eta puntuatzeko ondorengo irizpideak eta puntuazioaren orokorraren gaineko portzentaiak erabiliko dira:

1.– Proiektuaren interes orokorra, irizpide hauen arabera:

a) Balio artistiko-kulturala (% 25).

Proiektu bakoitzaren tipologiaren arabera, atal honetan, ondorengo aldeak kontuan hartuko dira: balio musikal-artistikoa, ondarezko balioa edota musika zabalkunde, formakuntza eta sentsibilizazioari dagozkien ekarpenak.

b) Garapen eta zabalkunde plana (% 15).

c) Musika jarduera profesionalaren egungo panoramaren inguruko planteamenduak eta berrikuntza-maila (% 10).

2.– Musika taldea edota proiektua garatzeko ardura duen lantaldearen ibilbide profesionala (% 20).

3.– Proiektuaren aurrekontuaren koherentzia eta autofinantzaketa maila (% 15).

4.– Musika-proiektuan euskarak duen presentzia (% 10).

5.– Emakumeen partaidetza proiektuaren jardueretan (% 5).

IV. KAPITULUA

MUSIKA-EKIMEN ENPRESARIALETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

23. artikulua.– Eskatzailearen betekizun espezifikoak.

3.1 artikuluan aipatzen direnez gain, modalitate honetako eskatzaileek dagozkien ondorengo baldintzak bete behar dituzte.

a) Enpresa jarduera garatu izana 2014. urtea baino lehen, hauetako arloren batean:

- Ekoizpen fonografikoa.
- Zuzeneko musika ekoizpena edo ordezkariak.
- Musika-zabalkundea.
- Publikoen sentsibilizazioa.

b) Testuinguru horretan, jarduerak 2016. urtean zehar 4 euskal artistari edo talderi sustapen enpresariala eman izana.

24. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak eta laguntzetako mugak.

1.– Modalitate honen bitartez, ondorengo jarduera bat edo gehiago kontenplazten dituzten proiektuak sustatuko dira:

1.1.– Aktiboan dagoen Euskadiko musikari edo musika talde bati dagozkionak:

a) Musika ekoizpena, zuzeneko formatuan ala fonografikoa (Ekoizpentzat 21.1.1 artikuluan aipatzen dena hartuko da aintzat).

b) Musika proiektu baten promozioa eta zabalkundea.

1.2.– Bestelako ekintzak euskal musikaren jardueraren alorrean:

a) Publikoen sentsibilizazioa edota formakuntza.

b) Entitatea musika jarduera eta industriaren egungo egoerara egokitzeko ekintza espezifikoak.

2.– Jarduera hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Izaera komertzial soila edo entitatearen katalogo historikoa ustiatzea helburu duten musika ekoizpenak.

b) Ekoizpen baten estreinaldiaren ondorengo kontzertuak, bai kontzertu puntualak bai biretan edo jaialdien barruan egiten direnak.

c) Formakuntza akademikora edo eskolarrera soilik bideratutako jarduerak edo materialen edizioa.

d) Azoka komertzialetara joatea.

3.– Modalitate honetan, eskatzaile bakoitzak proiektu bakar batentzako jaso ahal izango du diru-laguntza, nahiz eta horren barruan jarduera desberdinak azaldu eta aurrekontu egin (gehie-
nez bost). Dena den, onuradun batek ezingo du 28.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza jaso.

25. artikulua.– Hautaketa eta balorazio irizpideak.

Modalitate honetan aurkezturiko proiektuak baloratzeko eta puntuatzeko ondorengo irizpideak eta puntuazioaren orokorraren gaineko portzentaiak erabiliko dira:

1.– Proiektuaren interes orokorra, irizpide hauen arabera:

a) Balio artistiko-kulturala (% 15).

Proiektu bakoitzaren tipologiaren arabera, atal honetan, ondorengo aldeak kontuan hartuko dira: balio musikal-artistikoa, ondarezko balioa edota musika zabalkunde, formakuntza eta sentsibilizazioari dagozkien ekarpenak.

- b) Garapen eta zabalkunde plana (% 10).
- c) Proiektuaren aurrekontuaren koherentzia eta autofinantzaketa maila (% 20).
- d) Emakumeen partaidetza proiektuaren jardueretan (% 5).

2.– Musika-proiektuan euskarak duen presentzia (% 10).

Atal honetan proiektuan sartutako ekintzak kontuan hartuko dira, baita entitatearen jarduera orokorra ere, 2016an eginiko musika ekoizpenak erreferentzia izanda.

3.– Erakunde eskatzailearen balorazioa, Euskadiko musika-jarduera profesionala ekoizteko eta zabaltzeko entitate gisa.

3.1.– 2016. urtea erreferentziatzat hartuta:

a) antzintasuna (% 5); b) pertsonal-bolumena % 10); c) ekoizpen bolumena (% 5); d) Euskadiko musikariei dagozkien zerbitzuak eta ekoizpenak (% 10).

3.2.– Ibilbidea eta musika jardueraren egungo panoramari egokitzapena, zehazki:

a) entitatearen historiala (% 5); b). enpresaren bideragarritasunerako planteamenduak (% 5).

V. KAPITULUA

MUSIKA PROGRAMAZIORAKO DIRU-LAGUNTZAK

26. artikulua.– Eskatzailearen betebeharrak espezifikokoak.

Agindu honetako 3.1 artikuluan adierazitako betebeharrak kalterik egin gabe, honako baldintzak betetzen dituzten lokalaren titularrak direla edo zuzeneko musika programatzen duten musika-aretoen kudeatzaileak direla egiaztatu behar dute eskatzaileek:

- a) Euskararen geografiaren eremuaren barruan kokatuta egotea.
- b) Musika-ekitaldietarako behar den hirigintza- edo udal-lizentzia izatea, bai eta erantzukizun zibileko aseguruak ere.
- c) Gutxienez 120 lagunentzako legezko edukiera izatea.
- d) Musika programaziorako ekipamendu eta langile teknikoen multzo egonkorra izatea.
- e) Ordain-sarrerako ondorengo musika-ekitaldi kopurua gutxienez, programatu izana 2016. urtean, kanpoan utzita DJ saio eksklusiboak, eta ospakizun partikularrak:

– 100.000 biztanle baino gehiagoko herriak: 20.

– gainerako herriak: 12.

27. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta aretoen konpromisoak.

1.– Modalitate honen helburua da 2017ko urriaren 1etik 2018ko irailaren 30era bitartean egiten diren euskal musika-taldeen programazioak laguntzea.

2.– Modalitate honen bitartez lagundutako kontzertuetan programatzen diren taldeek hauetariko baldintza bat bete behar dute: a) musikaren sortzailea edota beren kideen erdia Euskal Herrian helbidea izatea; b) beren ohiko erreperitorioan euskara hizkuntza nagusia izatea.

3.– Laguntzen diren musika kontzertu edo ekitaldiek, beren formatua edozein delarik, ordain sarreraren gutxienez 6 euroko ordain-sarrera aurreikusi behar dute.

4.– Modalitate honen bitartez diru-laguntza jasotzen dutenek konpromiso hauek bereganatuko dituzte:

a) Deialdi honen bitartez jasotako diru-laguntza artikuluko honetako 1 eta 2 paragrafoetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten kontzertu eta Musika taldeen programazioari dagozkien ordainsarien, ekoizpen eta promozio gastuetan erabiltzea.

b) Lokal publiko eta kontzertu-antolatzaile gisa dagozkien obligazio guztiak betetzea.

c) Deialdi honen bitartez lagundutako kontzertuetan parte hartzen duen edozein talderen ordain-saria ez da inoiz 300 euro baino txikiagoa izango.

d) Modalitate honen eremuko taldeen kontzertuak zabalkundea egitea, horretarako eta Kultura eta Hizkuntza politika sailaren «Euskadiko Soinuak» programaren eta «Zuzen-Zuzenean» zirkuituaren goiburuak erabiliz.

28. artikulua.– Balorazio irizpideak eta diru-laguntzak banatzeko irizpideak.

1.– Modalitate honetan aurkezturiko proiektuak proiektuak baloratzeko eta puntuatzeko ondo-ongo irizpideak eta puntuazioaren orokorraren gaineko portzentaiak erabiliko dira:

a) 2016. urtean egiaztatutako ordain-sarreradun programazioa, erreferentzia hauen arabera:

a.1.– Programatzen diren musika taldeen kopurua (% 30).

a.2.– Talde nagusi gisa programatzen diren euskal taldeen kopurua (% 25).

a.3.– Nagusiki euskarazko errepertorioa duten programatutako taldeen kopurua (% 15).

a.4.– Emakumeen lidergoa edo beraien presentzia nagusi den taldeen kopurua (% 5).

b) Entitate eskatzailearen profil kulturala erreferentzia hauen arabera:

b.1.– Kultur planteamendua eta dagokion herriko kolektibo eta elkarteekiko harremanak (% 10).

b.2.– Ohiko musika programazioaz gain, Kultur jardueren programa 2016an (% 15).

2.– Modalitate honetan, behin betiko puntuazioa kalkulatzeko, eta 11.1 artikuluan finkatutakoa betetze aldera, areto bakoitzak balorazioaren a) atalean lorturiko puntuazio zuzena 75 (gehienezkoa) eta 35 (gutxienezkoa) puntuen arteko tartera haztatu egingo da.

3.– Onuradun bakoitzari dagokion diru-laguntza kalkulatzeko honela egingo da: onuradunari, lortutako puntuazioaren arabera, era proportzional eta haztatuan, 2 eta 9 arteko indizea ezarriko zaio, Indize hori, areto horren edukiaren arabera dagokion hurrengo modulu estandarrekin biderkatuko da:

Aretoaren edukiera	euro
120 - 199	1.600
200 - 399	1.800
400 edo gehiago	2.000

4.– Aurreko eragiketen emaitzak modalitate honetan erabilgarri den aurrekontu-zuzkidura osoa-
rekiko proportzioan haztatuko dira.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honen bidez araututako diru-laguntza programa Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 araudian (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 352/1, 2013-12-24) ezarritako minimis arauaren mendean dago (araudi hori Tratatuak 107. eta 108. artikulua minimis diru-laguntzei aplikatzeari buruzkoa da). Ondorioz, Kultura eta Politika eta Kultura Sailak beharrezkoak diren mekanismoak jarriko ditu abian, enpresa jakin bati emandako diru-laguntza osoa ez dela 200.000 eurotik gorakoa izango bermatzeko hiru ekitaldi fiskaletako edozein alditan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Interesdunek eskabideetan emandako datuak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren titulartasuneko fitxategi batean sartuko dira, hala ezarritako baitago Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan. Fitxategiak «Kultura sortzeko eta hedatzeko laguntzak eta diru-laguntzak» du izena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko abenduaren 2ko Aginduaren bidez araututa dago eta haren xedea da laguntza-espeditenteak kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak ditu; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko araudiarekin bat etorritik, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatu ahal da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren aurrean. Horretarako, honako helbide honetara jo behar da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak ere aztertu eta egiaztatu ahal da emandako datuak, laguntzak zuzen esleitzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, interesdunek aurrerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal diote Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 3a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.